

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 765/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendan hutsak zuzentzeari

2019ko azaroaren 13ko ALHAOn (131. zk.) argitaratu zen urriaren 22ko 656/2019 Foru Dekretuaren II. eranskinean, oker bati antzeman zaio, dagokion aplikazio informatikotik lortutako informazioa zerrendatzean sortutakoa, eta zuzendu egin behar da. Lanpostuak sortzeari buruzko II. eranskin horretan, garraioa ikuskatzeko zerbitzuaren buru (1011.001) lanpostuan, ezinbestekoa da berariazko betekizun gisa agertzea B gidabaimena (kodea: 200) izan beharra.

Horrez gain, kiroletako goi-mailako teknikari lanpostuan zenbait oker material antzeman zaie. Batetik, akatsa egin zen 2008ko ekainaren 11ko ALHAOn (66. zk.) argitaratu zen maiatzaren 20ko 41/2008 Foru Dekretuko III. eranskinean. Foru Dekretu horren bidez, kiroletako goi-mailako teknikari lanpostua (1265.001) sortu zen. Bestetik, urtarrilaren 24ko ALHAOn (10. zk.) argitaratu zen urtarrilaren 16ko 8/2018 Erabakia eta, haren bidez, kiroletako goi-mailako teknikariaren beste lanpostu bat (1265.001) sortu zen. Erabaki horren II. eranskinean aurreko akats bera errepikatu zen lanpostu horretan. Hau da, bi eranskin horietan ez zen lanpostuaren prestutasuna adierazi: urteko 60 ordu agertu behar ziren (3 kodea), lan ordutegitik kanpo gauzatu beharreko eginkizunak direla eta.

Dena den, 2008an eta 2018an lanpostuak sortu zirenetik, prestutasuna de factokoa da, ordainsaria eta eginkizunak direla eta.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan dio administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horrenbestez, egokia da oker materiala zuzentzea eta aipatutako bi lanpostuak ondo argitaratzea erabaki honekin batera doan eranskinean.

Aginduzko txostenak ikusita eta haiek direla bide, Arabako diputatu nagusiak proposatuta, eta kontuan edukita Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6.1.e) artikuluan ezartzen duena, Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak ezartzen duena, Funtzio Publikoaren Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuak ezartzen duena, eta funtzio publikoan eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak ezartzen duena, honako hau:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea urriaren 22ko 656/2019 Foru Dekretuaren II. eranskineko oker materiala eta garraioa ikuskatzeko zerbitzuaren buru (1011.001) lanpostua betetzeko ezinbesteko eta berariazko betekizun gisa ezartzea B gidabaimena (kodea: 200) izatea, eta zuzenketa horren ondoren, lanpostu horren ezaugarriak berriro argitaratzea erabaki honen eranskinean.

Bigarrena. Zuzentzea kiroletako goi-mailako teknikari lanpostua (1265.001) sortu zuen maiatzaren 20ko 41/2008 Foru Dekretuko III. eranskineko oker materiala eta kiroletako goi-mailako teknikariaren beste lanpostu bat (1265.002) sortu zuen urtarrilaren 16ko 8/2018 Erabakiaren

II. eranskina, hau da, zehaztea urteko 60 orduko prestatasuna dutela lanpostuek (3 kodea), eta zuzenketa horren ondoren, lanpostu horien ezaugarriak berriro argitaratzea erabaki honen eranskinean.

Hirugarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onesten duen egunaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Laugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertzeko errekurtoa, ebazpena eman duen erakundearen aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA

KODEA	IZENA	MOTA	DELERREG.		BET.	LANTOBIEN JARDUTERAKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA					
			BZT.	EZORD.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO			
			JARD.	JARD.		ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA		ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK	MAILA	OSAGARRIA	
<p>50 Saila BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA</p> <p>50.2 Zuzendaritza MUGIKORTASUN ETA GARRAIOA</p> <p>50.2.02 Zerbitzua GARRAIOA IKUSKATZEA</p>															
1011.001	GARRAIOA IKUSKATZEKO ZERB. BURUA	B	B	3	L	EAE	A 1	11	240	240	3	200	27	43.425,30	VITORIA-GASTEIZ
<p>70 Saila KULTURA ETA KIROLA</p> <p>70.2 Zuzendaritza KIROLA</p> <p>70.2.01 Zerbitzua KIROLA</p>															
1265.002	KIROLETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB	B		L	AFA	A 1	211	215	221	3	24	311.539,30	VITORIA-GASTEIZ	
<p style="text-align: right;">Lanpostu Totala: 2</p>															

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. 1